# NONDIK DATOR BOTERE SINDIKALA ?



Bilbo, 2017ko urriaren 2a

Christian Dufour

**Azaltzeko bi ildo nagusi daude** :

- Bata, gizarte zientzietan nagusi da. Sindikatuei esleitutako definizio legal eta insitituzioetan kokatzen du  botere sindikalaren jatorria,

- Bigarrena, ez hain hedatua, historian sustraituago dago. Sindikatuek duten ekintzareko gaitasunean kokatzen du botere sindikalaren jatorria

Bi ildo hauek ez dira sistematikoki kontrajarriak. Posible da bi ildo hauen ñabardurekin, sindikalgintza zer den eta zer izan daitekeen definituko duten kontzepzio zentzudunak zehaztea.

# Sindikalgintza, Estatu demokratikoan egituratuta dagoen entitatea

Sindikalgintzaren indarrak, era formal edo tradizionalean aitortzen zaizkion eskubideetan du sorburua.

Ordezkaritza politikoaren eta demokrazia ekonomikoaren adierazpen osagarria da. Denboraren poderioz, hurbilketa honi indarra ematen dion nazioarteko supra-egitura bat eraiki da.



Enrico Leta (Italiako lehen ministro ohia): «Europako langileen eskubideak beste kontinenteetako langileenak baino hobeak dira, Europari esker» ( France Inter 2017/09/18)

"Demokrazia, ez da kalea", Emmanuel Macron - 20/09

«Elkarrizketa soziala langileen ongizatearen eta enpresen etekin ekonomikoaren ongitasunaren funtsezko osagaia da. Horixe erakusten digute egunero gure lantaldeek enpresetan» (UNSA, CFDT, CFTC ko idazkari nagusiak, 2014/09/19)



Bide honetatik, sindikalgintzaren rola zokoratuta geratzen da: enpresaren bizitza ekonomikoaren alde sozialera mugatuta geratzen da. Jarraian, frantses estatuak emandako definizioak elkarrizketa sozialeko partaideen rola zehazten du:

Liberté • Égalité • Fraternité
RÉPUBLIQUE FRANÇAISE

*Sindikatuek langileen interes indibidual eta kolektiboen defentsa bermatzen dute maila nazionalean eta enpresaren esparruan...enpresa barnan funtsezko komunikazio rola bermatzen dute: organo parekideen bilera anitzetan lortutako informazioa edota beren eskubide indibidualen berri ematen diete langileei. Enplegatzaileekin gatazka dagoen kasuetan, sindikatuek langileen interesak defendatzen dituzte enpresen zuzendaritzen aurrean, eta protesta ekintza anitzetan parte har dezakete (greba, manifestazio, eskakizun...). Gatazka indibidualetan, langileak lagun ditzakete... Era berean sindikatuak* ***elkarrizketa sozialaren aktoreak*** *dira... negoziaziorako aktore, gobernu ordezkarien arteko informazio kontsulta edo trukerako aktore... langile eta enplegatzaileen artean gizarte eta ekonomia politikarekin erlazionatutako interes komuneko gaietan ere kontsulta edo trukerako aktore dira...*

http://www.vie-publique.fr/decouverte-institutions/citoyen/participation/syndicat/quel-est-role-syndicat.html




Funtsezko hiru galdera aurreko bi diapoetako teoriari:

- Eskubide horiek nondik datoz?
- Nola esplikatu eskubide sindikalen galera?
- Zergatik daude lege berdinen aurrean botere sindikal ezberdinak?



# Zilegitasun sindikala eta soldatapeko identitatea

Identitate eta interes desberdinen arteko sintesian oinarritutako ekintzaren emaitza da botere sindikala. Boterearen indarra, sintesiaren magnitudearen neurrikoa da.

Sintesi hau espazio anitz eta heterogeneotan aurrera eramaten da, non ordezkariek rol erabakiorra jokatzen duten.

Ordezkariek, neurri handi ala txikiagoan, aitortzen zaizkien eskubideak erabiltzen dituzte. Eskubide hauek, eraiki duten ordezkaritza-gaitasunaren araberakoak dira.


WORLD CONFEDERATION OF LABOUR
FOR NEW TRADE UNIONISM
AFTER COMMUNISM
A MUNKA VILÁGSZÖVETSÉGE
A KOMMUNIZMUS UTÁNI
MUNKÁSTANÁCSOK
FEDERATION OF WORKER'S COUNCILS

Gu-aren eraikuntza une garrantzitsua da ordezkaritzaren eraikuntzan, errealitate ezberdinetatik abiatuta (genero, adin, ogibide, lanbide, etnia, nazio…)
Eraikuntza hau identitateak ordezkatzen dituzten beste aktoreekin lehian egiten da beti (Estatua, alderdi politikoak, elizak, portaera eskemak…)

Jatorriz ezberdinak diren identiateak GU amankomun batean bateratzeko daukan gaitasunean dago talde sindikalaren indarra. Interes komuna eta identitatea, ez dira abiapuntuko interes eta identitatearen berdinak.



Eraikuntza honek inplikatzen du, egoera desberdinen muntaketa.
Ez da existitzen talde naturalik, ezta berez eskuratzen den interes komunik.
Ordezkarien taldeak bere oinarri potentzialaren aurrean egiaztatzen du berau mugiarazteko gaitasuna. Horretarako, oinarri sozial honi, onartu edo baztertuko duen identitatea proposatzen zaio.



Sindikalgintza indartsua da identitate potentzialen eraikuntza eta aukeraketan lidergoa duenean.
Rol hau etengabe kuestionatzen da, sindikatu barnean eta kanpoan.
Identitateak etengabe aldatzen ari dira.






Sindikalgintza eraikuntza prozesu horretan geldi geratzeko arriskuan dago etengabe.



**skrrk sk zr rrtgtk!**




Eskerrik asko zure arretagatik - Merci de votre attention